



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

CONSEJO VASCO DE
LA ABOGACIA



LEGELARIEN EUSKAL
KONTSEILUA

ERABAKIA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA LEGELARIEN EUSKAL KONTSEILUAREN ARTEKO HITZARMENA LUZATZEKO. HITZARMEN HORREN HELBURUA DA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN, FAMILIA BARRUKO INDARKERIAREN ETA SEXU-ASKATASUNAREN AURKAKO DELITUEN BIKTIMENTZAKO BEREHALAKO DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOA EMATEA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 28a

HONAKO HAUEK BILDU DIRA

Alde batetik, **Beatriz Artolazabal Albeniz andrea**, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua; 28/2020 Dekretuak izendatu zuen kargu horretarako (28/2020 DEKRETUA, irailaren 7koa, lehendakariarena, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua izendatzeko dena; 2020-09-08ko EHAA).

Bestetik, **Anton Echevarrieta Zorrilla jauna**, Legelarien Euskal Kontseiluaren izenean eta haren ordezkari gisa; organo horren presidente izendatu zen Kontseiluak 2021eko abenduaren 14an egin zuen osoko bilkuran.

Bi aldeek hitzarmen hau sinatzeko behar den legezko gaitasuna aitortu diote elkarri, eta, ondorioz, honako hau

AZALTZEN DUTE

I.- 2020ko martxoaren 12an sinatu zuten hitzarmena Lan eta Justizia Sailak eta Legelarien Euskal Kontseiluak, emakumeen aurkako indarkeriaren, familia barruko indarkeriaren eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimantzako berehalako doako laguntza juridikoa emateko Euskal Autonomia Erkidegoan.

II.- 2021eko abenduaren 30ean, aipatu hitzarmen horren luzapena sinatu zen, 2022ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra indarrean egon zedin.



III.- Hitzarmen horren bidez lagundutako biktimei zerbitzua mantendu behar zaienez, hitzarmenaren luzapena sinatu behar da, hitzarmenaren bidez lagundutako indarkeriaren biktimei kolektiboari arreta ematen jarraituko zaiela bermatzeko.

IV.- Aipatu luzapenaren indarraldia 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra bitartean ezarri da.

Horren arabera, alde sinatzaileek berriaz adierazi dute lankidetzan aritzeko asmoa, eta, horretarako, honako hau

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA. – 2020ko martxoaren 12an sinatutako hitzarmena luzatzea. Hitzarmen horren helburua da emakumeen aurkako indarkeriaren, familia barruko indarkeriaren eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimei zuzeneko laguntza juridikoa ematea Euskal Autonomia Erkidegoa.

BIGARRENA. – Luzapenaren indarraldia 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra bitartekoa izango da.

HIRUGARRENA. - 2020ko martxoaren 12an sinatutako hitzarmenean jasotzen diren klausula guztiak berdin-berdin utziko dira.

LAUGARRENA. – Hitzarmen honetan hartzen diren konpromisoak Jaurlaritzaren Kontseiluak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoen aldeko zuzeneko dirulaguntza onartzearen mende egongo dira.

Aurreko guztiarekin bat etorriz, sinatzaileek, beren eskumenak baliatuz, behar bezala jasota geratzeko eta ados daudela adierazteko, hasieran adierazitako lekuan eta egunean bi aletan eta ondorio bakarraz sinatu dute luzatzeko erabaki hau.

**Berdintasun, Justizia eta Gizarte
Politiketako Sailaren izenean**

**Legelarien Euskal Kontseiluaren
izenean**

**Sin.: Beatriz Artolazabal Albeniz
andrea**

Antón Echevarrieta Zorrilla jauna